

KIROL ETA KULTUR JARDUERAK HAUR ETA NERABEENTZAT 2019 – 2020 IKASTURTEA

Eskaerak irailaren 9tik 20ra bete beharko dira online www.irura.eus atarian.

Eskaerak lekuak baino gehiago direnean interesatuen zerrendak osatuko dira eta matrikula eskubidea zozketa bidez erabakiko da.

Behar izanez gero, zozketa irailaren 23an, 11:30etan egingo da udaletxean.

Iruran erroldatutakoak lehentasun osoa izango dute. (Beharrezkoa da errolda agiria aurkeztea).

6 matrikula baino gutxigoko taldeak bertan behera geratuko dira.

hobariak: (Iruran erroldatutakoentzat bakarrik).

-familia ugariaren agiria ekartzen dutenei %20ko deskontua aplikatuko zaie (agiria aurkeztea beharrezkoa da).

-Inork ordaintzeko arazoak balitu, udaleko gizarte zerbitzuetako agiria aurkeztuta kuotaren %10a ordainduko luke.

Ikastaroak urriaren 7ko astean hasiko dira.